

BERTSOAK ETA ERREGISTROAK



Andoni Egaña
Bertsolaria eta idazlea

Bertsogintza, batik bat gaiak bestek emanak direlarik, ekinaldi mota konplexua da. Bertsolari bat, esaterako Sustrai Colina, izan daiteke etzi bakarkako gai batean Lance Armstrong, zazpi Tourrak kendu berritan prentsaurreko batean bere azalpenak ematen ari dena ehunka kazetariren aurrean. Ireki du ahoa Sustrai eta Armstrong hasi da hizketan. Gu oso ohituak gaudelako, baina bertsolaririk inoiz entzun ez duenarentzat ez da deszifratzen erraza. Esaten dena Armstrongek esaten du, baina Sustraiaren mintzoa da! Armstrong da Sustraiaren galbahetik pasatuta! Edo Sustrai Armstrongena egiten! Eta bertsozaleak jolas konplexu horretantxe hartu nahi du parte.

Gainera, kartzelako gaia bada, bertsozaleak entzun eta alderatu egin nahiko du nolakoa den Ametsen ahotik entzuten dugun Armstrong hori, Maddiren ahotik entzuten duguna, Odeiren ahotik entzun duguna...

Eta are konplexuagoa da kontua, ahoa eta mintzoa norberekak direnean. Demagun gaia dela: Sustrai, zure etxeko besaulkian eseri eta telebistari adi-adi zaude. Armstrong, zazpi Tourrak kendu ondoren, prentsaurrekoa ematen ari da. Orduan Sustraiarenak dira ahoa, mintzoa... dena.

Beraz, bertso-saio bakar batean hainbat kontu nahasten dira. Konplexua da. Pentsa zenbateraino den konplexua! Sustrai teman ari zen, ez dakit zehatz norekin. Demagun, Maddi Sarasuarekin ari zela. Bata zen esne-ekoizlea eta bestea gasnagilea, demagun. Hasi zen Sustrai esne-ekoizlearen paperean... Ondo. Ondo arrazoitu zuen bere bertsoa zegokion paperetik. Maddirena entzutean, ordea, zalantza egin ondo ulertu ote zuen, eta jiratu eta gai-jartzaileari egin zion kontsulta.

Hori ona da? Ez...Zergatik? Ba, Sustrai zelako gaia entzuten eta pentsatzen ari zena. Gero, esne-ekoizlea, gero berriz Sustrai zalantza argitzera atzeratu zena eta berriz esne-ekoizlea izan beharra zeukalako publikoaren belarrietara. Konplexua are gehiago konplikatzea da hori! Eta kalte egiten dio komunikazioari, nahiz bertsoen kalitate testualari kalterik egin ez, Sustrairen gisako bertsolari bikain bat tartean delarik.

Hori argituta gero, beste kontutxo bat, hasteko. ERREGISTROA? Zer da erregistroa? Hizkuntza baten baitan, gizon-emakume talde desberdinek duten mintzaira. Beste herrialdeetan ere halatsu izango da, baina guk Euskal Herrikoari begiratuko diogu. Ez baita sailkapen bakarra erregistroena. Sailkapena izan daiteke:

- Euskalkien arabera...
- Adinaren arabera...
- Ofizioaren edo lagunartearen arabera...
- Gorputz aldartearen arabera...(lokartua, mozkorra, euforikoa, tristea)

ERREGISTROAren erabilpen egokiak asko du imitatze gaitasunetik. Azken batean, hori da erregistroa: hizkuntza estandarretik kanpo dagoen zerbait, ezaugarri jakin batzuk dituena. Ezaugarri horiek detektatu eta une egokian errepikatzean datza erregistroaren erabilera egokia. Esaterako, Juan Carlos Erregearen paperean, tontoarena egiteaz gain, asko laguntzen du totelarena egiteak ere.

Edo goazen Sustrai besaulkian Armstrongen prentsaurrekoa entzuten ari zen gaira. Demagun bukaera pentsatu duela: "maiz engainatu ninduzun, gaur ez dut sinisten ezer". Nola koloreztatuko luke argudio hori modurik egokienean? Aukera bat honakoa litzateke:

Beti harro, kokotz-gora
beti *american-power*
ez gara beti izango
ni gregario zu lider...

Maiz engainatu ninduzun
Gaur ez dut sinisten ezer.

Hori duela berrogei urte ezinezkoa zen. Bai bertsolarien aldetik eta bai entzuleen aldetik ere. Gaur egun posible da...


Baina ez da juxtu-juxtu erregistroaren arloko adibidea. Hor, balizko Sustrai horrek erakutsiko lukeena da ezagutza handia txirrindularitzaren arlo semantikoarekiko eta ezagutza handia beste hizkuntzetan fosilizaturik dauden eta

beraz ulerterrazak diren esamoldeetarako.

- EUSKARA BATUA eta bertsolari batek esan zuena:

“Euskara batua? Hori jada bertsolariok inbentatua geneukan!”. Bertsolari batek esana omen da, eta ez da guztiz bururik gabeko esaldia. Euskara batua xextragai izan zen... Bertsolariak beti jendaurrean egiten du lan. Beti komunikatu nahi du. Toposa bilatzeko joera du. Eta nahiko ongi identifikatzen ditu komunikazio-korapilorik handienak. Horretan, ibiliak garrantzi handia du. Gaztetxotan, artean Euskal Herrira gutxi irtenak ginenean, nola ulertzen genuen ba, “Lepoan hartu ta segi aurrera”?

Euskararen egoeraz ere pare bat hitz egin nahi nituzke gaia kokatze aldera. Aurten, duela hilabete pasatxo, Donostiako Zinemaldian epaimahaiko izatea egokitu zitzaidan. Begi-belarri zoliagoz ikusi eta entzun nituen filmak. Eta analisi bat egin behar banu, esango nuke aurkitu nituen euskarak ez zitzaizkidala batere arrotz.



- *Baypasseko* ETBko euskara, komedia erromantiko bati dagokiona.
- *Baztaneko XVII. mendeko* euskara, eta gaur egungoa.
- *Zuloakeko* neska musikariek euren artean kamerinoetan zerabiltena.

Denak dira euskara. Filologo batek, edo purista batek denei aurkituko lieke *bainaren* bat. Nik, harro diot, ez zitzaidala arrotz euskara horietan bakar bat ere.

JON SARASUAK ere aipatzen zituen bertsotan hasi zelarrik izan zituen desabantailak eta abantailak (ohartu zenean). Apotzagan trebatu zen Jon bertsotan. Eta han Leintz inguruko euskara egiten zuen. Euskal Herri osorako bertsotan hasi zelarrik, ohartzen zen ideia bertsuak Euzkitzek botaz gero, tokirik gehienetan hobeto hartzen zirela. Eta *mix* bat egiteko aukera zeukala ohartu zen ondoren. Atxabaletakoa gehi etxeko Oriokoa gehi euskara batua...Eta askoz hobeto “funtzionatzen” hasi omen zen orduan.



1. BERTSOLARI bakoitzaren estiloa eta sinesgarritasuna.

Komunikazioaz ari gara, eta ez bertsolari bakoitzaren on/txar parametroetan. Halere, hasteko, zertzeladaren batzuk: badira bertsolari batzuk Euskal Herri osokoak direnak, eta beste batzuk ez. Eta horrek ez du zerikusirik kalitatearekin. Edo ez behintzat kalitatearekin, ulertzen dugun parametroetan.

Beti azalpenik axalekoenak eman izan dira: herriak agintzen du eta herriak batzuk nahi ditu besteen aurretik edo besteak baino gehiago. Konforme! Baina zergatik?

Eta hor, esango nuke, komunikazio gaitasunak baduela zerikusirik. Beste galdera bat badago lehengo baina zehatzagoa. Zergatik bertsolari batzuk bere ingurutxoan sekulako maila dute eta Euskal Herri osorako aterabiderik ez? Euskalki kontua bakarrik da?

Nik ezagutu ditudan bi iraultzarik handienak bi muturretatik hasiak dira. Eta bakoitzak bere garaian, biek txunditu ninduten. Xabier Amurizarenaz eta Maialen Lujanbiorenaz ari naiz. Biek erabili zuten hizkuntza modu bat nahi zutena adierazteko. Badakit kontu hau urrun egon daitekeela erregistroaren kontu zehatzetik, baina auzo-gaia behintzat badela ez didazue ukatuko.

Amurizarena, 80ko Txapelketa Nagusi hartan bistaratu zena gehienbat, hizkuntza borobilduzat definituko nuke. Maialenena, berriz, hizkuntza ertzduntzat. Eta ez du esan nahi horrek bata bestea baino hobea denik.

2.DOINUAK eta euskararen erabilpena.

Doinua ez da bertsolariantzat osagai arrunta edo hornidura soilik. Testuaren ibaia da doinua. Testua baldintzatzen du. Inoiz aipatu izan dut maiorreko donuak hobeak direla sententzia emateko eta minorrekoak hobeak iradokitzeke, adarra jotzeko, zalantza azaltzeko...

Era berean, doinu batzuetan min ematen du geure euskalkian egiteak... Beste batzuetan mesede egiten duela esango nuke. Edo esango nuke ez dela euskalki kontua bakarrik. Mintzo borobildua eta mintzo inperfektua edo ertzduna jarriko nituzke aurrez aurre.

Gaia: Erloju berria daukazu eskumuturrean.

Aita izena doinuan holatsu kantatuko nuke:

Ze oparia nire berrogei
ta hamargarren urtean
alabak norbait ezagutu du
JOSE MARIen artean
disdira handirik ez izanarren
esferan eta katean
gutxienean borobila da
ta ez da nire kaltean
baina askotan da lo egina
kaxa karratu batean.

Beste doinu batean, alaiagoan, nolabait adierazteko:

Hau oparia nere berrogei
ta hamargarren urtian
alabak norbait ezagutu du
JOXEMARIen artian
disdira handirik ez dauka euki
ez esferan ez katian
gutxin-gutxinez borobila da
hori ez da nere kaltian
baina ziur maiz lo egin dula
kaja kuadratu batian.



3. ETORKIZUNERAKO APUSTUA. ROLAK BEREIZI.

Ander Lipusen pertsonajeen adibidea: Juan Junda, Euxebio, Ignatius mozkorra, Camaleón, Manex Dominitxine...

Lipusen ekarpenik handiena da, ordea, pertsonaia bakoitza, beretik, inprobisatzeko gai dela. Berak badaki azaltzen eta nik ez, baina arnagune

desberdinek laguntzen omen diote une bakoitzean nor den gogoratzen eta nor horrek zer hizkera, zer jokaera eta zer ideia izango dituen erabakitzen.

Lipusek ordea, pertsonaia corpus txikia du. Zortzi-bederatzi. Ongi bereiziaz bata bestearengandik. Eta berak aukeratuak.

Bertsogintzan erregistroena ez da askorik bistaratu. Arrazoi nagusia da OSO ZAILA dela, bat-batean, honako edo halako pertsonaiaren pentsaeraz eta argudiaketaz gain, haren hizkera ere imitatzea. Gainera, ehunka izan daitezke tokatutako pertsonaiaak eta ez dago beti argi perfil markaturik duten ere.

Badira erregistrorako ofizioak edo gizarte-estatusak edo ematen duena baino lan ERRAZAGOAK. JATORRIA eta batik bat ADINA aipatuko nituzke.

Hor zerbait egitea errazagotzat daukat. ADINA, bi muturretakoa, ume edo zahar-zahar... imitaerrazagoak dira. Eta eskerronekoak entzuleen aldetik. Horien mentalitatea, usteak eta hizkera imitaerrazagoak dira. Baita, esate baterako, euskara ikasten hasi berria den euskaldun berriaren papera ere.

Adibidez: Iñaki Murua 1989ko Txapelketa Nagusiaren finalean. Hauxe zuen gaia: "Ume bat zara. Hondarrezko gaztelu bat egin duzu eta itsasoak, igo denean, zapuztu egin dizu". Honela bukatu izan balu:

"Ai itsasoa zure joera oso gaiztoa izan da ez al zen aski etorri eta hareari pa emanda?"

"Nik uste nuen ona zinela, baina gaiztoa zara zu aitaxitori esango diot eta ikusiko duzu!"

Edo haurrari nola hitz egin ere imita daiteke. Neuk eduki nuen aukera ederra azken Txapelketa Nagusian: Olentzerorena egiten harrapatu ninduenan alabak.

Zaharren kasuan zailxeago da. Ez da umeena bezain markatua hizkera. Baina Peñak bapo baliatu zuen aukera... "Requiem es dominen virgo veneranda".

Gaur egun, nik uste GAZTE HIZKERA ere imita daitekeela...

Hortik aurrera? Ez da samurra... Ogibide edo estatusaren edo egoeraren mailako euskara desberdindua erabil daiteke. Baina imitazio soiletik goragoko zerbait eskatzen du horrek. Eta bat-batean gainera?

Zaila da. Baina gero eta errazagoa izango da. Bertsolarien gaitasunak gora egingo duelako eta euskararen garabideak ere gero eta indartsuagoak eta

askotarikoagoak izatea espero dudalako. Arestian jarri dudan adibidea, *Baypass*, *Baztan* eta *Zuloakena* gogoratu besterik ez duzue.

Gu gaztetxo ginela, euskara mota gutxi entzuten genuen. Etxekoa, kalekoa eta ikastolakoa nik. Eta elkarren oso antzekoak ziren gure kasuan.

Oraingo gaztetxoek, etxekoa askok, kalekoa eta, hedabideen bidez, euskalkietakoak, hainbat lanbidetakoak, estereotipoak... entzun ditzakete. Badakizue nor den gure hamazortzi urteko semearen eta bere kuadrillakoen idoloa? Nor entzuteko desiratzen egoten diren? Joseba Urkiola. ETBko kazetari leitzar gazte bat da, kirol-sailean ari dena. Lekuari eta egokierari ez dagokion joritasuna darabil hizketan eta gure gazteek harrapatu egin dute eta grazia egiten die!!! Badakite oso parera ez datorren erregistroa darabilela, eta imitagai peto-petoa bihurtu da.

4. HITANOA... AINTZAT HARTU BEHAR GENUKEEN LEHEN ERREGISTROA

Kalean barra-barra hika egiten dugun bertsolariok ere oso gutxitan egiten dugu bertsotan hika.

Historian zehar ere ez dira bertso asko geratu hikakoak. “ Aizak hi mutil mainontzi”, “Gure sorotik lapurtzen dituk sahatsak eta urritzak”... Biak ere errieta edo kargu hartzeko egoeratakoak dira. Ez da kasualitatea... Gure etxean ere gauza bera gertatzen da ama-alabekin. Badira, jakina, kasu gehiago. Amurizak txapelari hika kantatu zion lehenengo hartan:

“Aizak hi txapel, zer sentitzen duk...”.

Eta Gorrotxategiren azken agurra ere hika izan zen: “...merezi dek ta lagun Xabier, gorde zak urte askuan!”.

Zergatik erabiltzen ditugu hain gutxitan hikako formak? Tira... Bertsotako errima-metrikak, gure esamolde eginak, gure ohiturak... zukakoak dira. Eta sistemaren aldaketa bat ekarri beharko luke hika hasteak. Sistema berri horren lanketa ez litzateke, ordea, beste munduko lana. Ohiz hika egiten duenarentzat ez litzateke batuan kantatzetik bizkaieraz kantatzera dagoen baino jauzi handiagoa, esaterako. Eta hori egitea lortu dutenak badira.

Eta hikaren kontu honetan ere badut susmo bat: gai batzuk ez ezik, doinu batzuk ere eskertu egingo lukete hikako formen erabilera.